

MIGUEL INDURAIN SARIA. Etxauri eta Lezaungo mendateak erabakigarriak izan ziren atzo



Miguel Indurainek eman zion garaikurra Angel Viciosori, nafarraren omenez antolatu den txapelketa birritan irabazi duen txirrindulariari.

Angel Vicioso bigarrenenez izan da garaile Lizarrako lasterketan

Kelmeko txirrindulari aragoiarrak esprintean irabazi zien Marcos Serrano eta Mario Aerts

Erredakzioa | DONOSTIA

Angel Vicioso izan zen atzo jokatu zen Miguel Indurain Sari Nagusiko irabazle. Once-Eroski taldeko Marcos Serrano eta Lotto Mario Aerts izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. Viciosok ia lau ordu eta erdi behar izan zituen, Lizarran hasiera eta helmuga zuen 179 kilometroko ibilbidea osatzeko. Kelmeko 24 urteko txirrindulari aragoiarra izan zen, hain zuzen ere, iaz sariketa hau bera irabazi zuena. Seigarren postuan heldu zuen Aitor Osa. Euskaltel taldeko txirrindularia, izan zen lehenengo euskalduna.

Lasterketa honetan ohiko bihurtu den moduan, azkeneko bi mendateak —lehen kategoriako Etxauri eta bigarreneko Lezaun— erabakigarriak izan ziren, izan ere, lasterketa hautsi baituzten.

Ihesaldien ondorioz, antolatzailerik aurreikusitakoa baino azkarragoa izan zen lasterketa, eta batez beste, 39 kilometro orduko abiadan ibili ziren.

Hogeita bi txirrindulariaren ihesaldi bat ere izan zen eta ihes eginda egon zenetako bat Mapei taldeko Pedro Horrillo txirrindulari euskalduna izan zen. Hala ere, Etxauriko mendatea

igotzerako pelotoiak iheslari guztiak irentsi zituen.

Mendaterik latzenak igotzerakoan pelotoia sakabanatu egin zen eta onenen taldea eratu. Alex Zuellek erakustaldia egin zuen Etxauriko igoeran eta indartsuen zeudenek soilik jarraitu zioten. Mendatea igotzerako hogeita hamar txirrindulari inguruko talde bat bereizi zen besteengandik eta Lezaungo igoeran Serrano, Vicioso eta Aertsek ihes egitea lortu zuten.

Iheslariak euren atzetik zetozei hogeitasei segundu inguruko tartea mantentzea lortu zuten, Lotto taldeko txirrindulariak egin zuen lanari esker, batez ere. Helmugatik lau kilometro-ra zegoen Muru mendatearen igoera ere hogeitasei segundoko tartearkin gaintitu zuten, eta Vicioso erraz gailendu zitzaizen esprintean Lotto eta Onceko txirrindulariei.

Era honetan, Kelmeko txirrindulari gazteak bere bosgarren garaipena eskuratu du 1999an profesional egin zenetik.

Laugarren aldia

Aurtengoa txirrindulari nafarraren omenez egiten den laugarren lasterketa da. Stefano Gar-

zelli izan zen Miguel Indurain Sari Nagusia irabazi zuen lehen, Miguel Angel Martin Perdiger hurrengo, eta azken bi urteetan Angel Vicioso izan da garaile.

Viciosok Indurainen eskutik jaso zuen garaikurra, baina ez zen saritu zuten kirolari bakarria izan. Angel Luis Caserok *Kiroltasunaren Mahai Nafarra* saria jaso zuen Espainiako Itzulian izandako kiroltasunagatik.

Lizarrako Txirrindulari Taldeak antolatzen duen hogeita hamabosgarren sariketa da honakoa, baina duela lau urtetik hona txirrindulari nafar handiaren omenez jokatzeko da.

Aurten, lasterketa ez da Iruñetik igaro. Hori dela medio ohikoa baino 12 kilometro gutxiago izan ditu lasterketak.

SAILKAPENA

TXIRRINDULARIA	DENBORA
1. Angel Vicioso (Kelme)	4:28:18
2. Marcos Serrano (Once)	d.b.
3. Mario Aerts (Lotto)	d.b.
4. Fernando Escartin	17ra
5. Aitor Osa (Banesto)	d.b.
6. Paco Mancebo (Banesto)	d.b.
7. Jorg Jaksche (Once)	d.b.
8. B. Fernandez (Cofidis)	d.b.
9. J.J. de Los Angeles (Kelme)	d.b.
10. Gonzalo Bayarri (Jazztel)	d.b.

VICIOSO

«Ez nuen uste iritsiko nintzenik»

Angel Viciosok ez zuen bere zoriona ezkutatu garaipenaren ostean: «Oso pozik nago, Miguel Indurainen izena daraman lasterketa irabaztea ohore bat da niretzat, eta bigarren aldia izateak are gehiago poztzen nau». Hala ere, Kelme taldeko txirrindulariak ez zuen ukatu kostatutako garaipena izan zenik: «Indartsu sentitzen nintzen, baina haizeak oso indartsu jotzen zuen eta ez nuen uste iritsiko nintzenik». Iaz lasterketa bera irabazi zuen, baina orduan esprint jendetsuago batean gailendu zen Vicioso eta onartu zuen «errazagoa» dela «hiru txirrindulariaren esprint batean irabaztea, esprint jendetsu batean baino». Viciosok bere garaipena eskaintzeko baliatu zuen aukera: «Aitari eskaini nahi diot gaurko garaipena, duela gutxi operatu dute eta ez dago oso ongi, eta bide batez, baita nire aitona ere, gaixo egon da-eta».

MUNDUKO KOPA

Faborito argirik gabe jokatu da gaur Flandriako Tourra

Erredakzioa | DONOSTIA

Munduko Kopako bigarren lasterketa jokatu da gaur, Flandriako Tourra hain zuzen ere. 25 taldeko txirrindulariek hartuko dute parte proba honetan, eta guztira 264 kilometroko ibilbidea egin beharko dute.

Lasterketa Brujastik abiatuko da goizeko 09:45ean eta antolatzaileek arratsaldeko 16:30ean amaituko dela aurreikusi dute. Txirrindulariek hamasei mendate gaintitu beharko dituzte 151. kilometrotik aurrera, haien artean Grammonteko Hesi famatua.

Faborito argirik ez badago ere, lehen postuetan egon daitezkeen artean Erik Zabel alemaniarra, Peter Van Petegem eta Johan Museeuw belgikarrak, Paolo Bettini eta Michele Bartoli italiarrak, eta George Hincapie eta Lance Armstrong daude.

Armstrong Tourrari begira

Azken hiru Frantziako Tourrak irabazi dituen Armstrongek bere taldekide Hincapierekin egingo du lan proba honetan. Adierazi duenez «lasterketan anbizioren gabe» parte hartuko du, baina bere arerioak ez dira asko fido estatubatuarraz eta «aurrean egoteko moduko sasoi» duela esan du Jos Braeckevelt Peter Van Petegemen zuzendaria.

Armstrongen sasoiaren zer moduzkoa zen ikusteko aukera ezin hobea izango da gaurkoa.

US Postal taldeak Gianpaolo Mondini txirrindulari italiarra kaleratu du berriki. 2001eko Giroan egindako miaketa polizial batean dopin produktuak aurkitu zitzaizkion Mondiniri eta ezarriko dioten zigorraren zain dago orduetik. Garai hartan Mercatone taldean zebilen 29 urteko italiarra lau urte eta erdirako zigortu dezake.

US Postaleko zuzendari Mark Gorsik aditzaera eman duenez, «talderako hartu zutenean ez zekiten zer zertan sartuta zebilen txirrindularia», eta horregatik kaleratu dute.